

AHT: txikizioa hasi da...

Patxi Lopez: aro berri bat hasi da
Kultur agenda
Urkiko jaiak



Aro berri bat hasi da Euskal Herrian Patxi Lopez lehendakari izendatuta

Patxi Lopez lehendakari izendatuta, Euskadi aro berri batean sartu da eta EAJ oposizioan egongo da, 30 urtez jarraian Eusko Jaurlaritza zuzendu ostean. Bada, aldaketa instituzional hau ez da aldaketa sozial baten fruitu, hauteskunderen emaitzetan tribunalaren esku-hartzearen emaitza baizik. Baliogabetuak izan ziren Ezker Abertzalearen bozak aintzat hartuz gero, argi dago emaitzak ez liratekeela berdinak izango.

Autonomia ezarri zenetik lehen aldiz galdu du EAJk boterea, eta Ajuria Eneako eserlekua utzi beharrean gertatu da martxoaren 1eko hauteskundeak irabazi arren.



PPSE, PP eta UPDren botoekin izendatu zuen Eusko Legebiltzarrak maiatzaren 5ean Patxi Lopez Eusko Jaurlaritzako lehendakari. Gehiengo osoz aukeratu zuen, 39 botoekin. Juan Jose Ibarretxeren hautagaitzak, berriz, 35 legebiltzarkideren sostengua jasota, ez zuen babes nahikorik lortu. EAJren babesa ez ezik, EA eta Aralarren sostengua ere jaso zuen Ibarretxek. Ezker Batuak, berriz, abstentzioaren alde egin zuen bi lehendakariaren artean. Martxoaren 1eko hauteskundeetarako D3M hautesle plataforma Espainiako Justiziak baliogabe utzi izan ez balu eta hark bozetan izandako botoak kontuan hartu izan balira, PSE-EEK, PPK eta UPDK ez zuketzen gehiengo osoa lortuko. Baina egun hartan, bere boterea handitzeko Ezker Abertzalearen apartheid-az baliatu zenak bere eserleku gustukoena galdu du hauteskundeak irabazi bazituen ere. Hauxe da duela bi hilabete ospatu ziren hauteskunde antidemokratikoen utzi duten paradoxa.

Patxi Lopez lehendakari aukeratu zuen inbestidura saioak goizetik iluntzera arte iraun zuen. Guztia aurreikusita zegoen bezala gertatu zen, hautatua izateko gehiengo osoaren babesa alde aurretik bermatuta zeukala aurkeztu zuen hautagaitza Lopezek goizean, eta ezustekorik gabe aukeratu zuen Legebiltzarrak lehendakari arratsaldean, inbestidura saioa amaitzearekin bat. Ezusteko baka-

rra Juan Jose Ibarretxek eman zuen politika utziko duela jakinaraztean.

Arantza Quiroga Legebiltzarreko presidenteak Patxi Lopez Eusko Jaurlaritzako lehendakari izendatu eta berehala jaso zituen Ibarretxeren zorian zein besarkada, eta Lopezek, haren interbentzioan, "garai politiko berrirako" eskua luzatu zion EAJri.

Karguari zina

Inbestidura saioa amaitu eta bi egunetara, maiatzaren 7an, lehendakari berriak karguari zin egin zion Gernikako junte-txean Joan Jose Ibarretxeren eskutik agindu makila jasoaz ondoren.

Ezin esanguratsua izan zen lehendakari kargua hartzeko ekitaldia. Zinpetzea Estatutuaren gainean egin zuen Bibliaren gainean egin ordez promesa honi kutsu erlijioso kendu asmoz eta "Koroari leialtasuna erakutsiz eta Konstituzioari, Gernikako Estatutuari eta indarrean dauden gainontzeko legeei errespetua gordez" beteko duela bere lana hitz eman zuen ordura arte erabiltzen zen "Euskadiren zerbitzura" formularen ordez. Beraz, bere aurreko ordezkariak egin ez bezala, lehendakariak eta "Euskal Herrian Estatuaren ordezkari arrunta"-ren karguaren jabetza hartu zuen lehenik Patxi Lopezek eta Gernikako zuhaitzaren azpian jaso zuen makila ondoren. Polizia Nazionaleko goi-karguak, Guardia

Zibilak trikornioak buruan edo uniforme jantzitako militarrek gonbidatuak izan ziren ekitaldira.

Euskal Herria garai berri baten atarian dagoela iragarri nahi zuen sinbologia horrek guztiak. Izan ere, Koroari, Estatutuari zein Estatuaren gainerako ordenantza juridikoei leialtasuna lehenik aitortzearekin garbi utzi zuen lehendakari berriak bere karguaren zilegitasuna non oinarritzen den.

Gobernu berria

Ostegunean bertan eman zituen ezagutzera Patxi Lopezek bere Gobernuaren sailburuak. Bost gizonezko eta bost emakumezko beteko dituzte gobernu berriko eserlekuak; hauetariko sei PSE-EE-ko alderdikide dira eta gainerako lauak independenteak. Hauexek izango dira, beraz, Euskal Herriko gobernu berriko ordezkari berriak:

Rodolfo Ares (Herrizaingo Saila), Bernabe Unda (Industria), Idoia Mendia (Nekazaritza), Rafael Bengoa (Osasuna), Carlos Aguirre (Ekonomia), Blanca Urgell (Kultura), Iñaki Arriola (Garraioa), Isabel Celaa (Hezkuntza), Pilar Unzueta (Ingurumena) eta Gemma Zabaleta (Politika Sozialak).

Aldaketak aldaketa ekarri ohi izan du berarekin eta zalantzarik ez dago berehala antzemango dugula euskal herritarrok hasi berri dugun aro politiko berri honen lehen haize ufa den norantza. ■

Etorri berriei ate asko irekitzen dizkie euskaraz

XX. mendean Euskal Herrira etorri-tako etorkin kopuru handiak nabarmen eraldatu zituen bertako egitura sozial, politiko eta kulturala, leku askotan euskal komunitatea egoera minorizatuan utzi arte. Eta gaur egun, oraindik ere ematen den aurreko immigrazio horri 80ko hamarkadatik aurrera Europa barrutik eta kanpotik datorrena gehitu behar zaio.

Itsasondo eta gainerako UEMAko herriak, oro har, euskaraz bizi diren eremuak izanik, aldi-aldi euskaratik urrun (batzuk oso urrun, beste batzuk ez hain urrun) bizi izan diren pertsonak herrira heldu eta auzoko berriak bihurtu dira. Aipatu dugu prozesua ez dela berria, baina ezin da ukatu jende mugimenduak areagotu egin direla azken urteetan. Itsasondon bertan, 2000. urtetik ona Euskal Herrikan kanpotik etorritakoen kopurua %0,3tik %5,8 izatera pasa da. Hots, 2 lagun izatetik 39 izateraino.

Jende mugimenduak hizkuntza ezberdinak eta hizkuntzen arteko elkarbizitza eragiten du, baita herri euskaldunen artean ere. Eta hori horrela, euskarak herri-hizkuntza nagusi izateari eutsi dio herri euskaldunetara. Ez dago zalantzarik etorkizuneari ere hala izaten jarraituko duela eta hizkuntza berrien agerpenak, auzoko berrien agerpenak, herri euskaldunetako errealitate aberastu egingo duela. Herri euskaldunetako herritarrek euskarari normaltasunez eusten badiote, auzoko berriak ez du duda izpirik izango eta euskararanzko bidea egingo du. Arinago edo mantsoago, baina egingo du.

Itsasondoan erroka nagusiak horixe bera izan behar du: Itsasondon euskara eguneroko hizkuntza izaten jarraitzea. Horretan laguntzeko Itsasondoko Udala bai Goiekiren bidez bai UEMAren bidez etorri berriak herritartzeko planak martxan nola jarri aztertzen ari da. Momentuz, udalera datozenean, nora etorri diren eta dituzten oinarriko beharren inguruko informazioa euskaraz eta haien hizkuntza emateko informazio orriak egin dira 6 hizkuntzatan. Eta aurrera begira, etorri berriak euskarara erakartzeko ekintza plan bat martxan jartzeko asmoa ere badago. Itsasondoan eta auzokide berrien arteko lagun-talde bidez euskarara hurbiltzeko bideak errazteko metodo baten bidez egin nahi da plan hori.

2009an UEMAko 3 herritan jarriko da




Atzerritarrak Itsasondon

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2009
Populazio osoa	588	581	581	564	554	565	591	650
Atzerritarrak guztira	2	5	9	11	14	18	30	39
Atzerritar emakumeak	0	2	5	7	9	10	18	18
Atzerritar gizonezkoak	2	3	4	4	5	8	12	21
Atzerritarren ehunekoa	%0,5	%0,9	%1,5	%2	%2,5	%3,2	%5,1	%5,8



Atzerritarren jatorria

Herrialdea	2001	2003	2006	2009
Ecuador	0	1	10	0
Portugal	4	4	6	8
Marruecos	0	1	5	6
Colombia	0	4	4	4
Cabo verde	1	1	2	2
Grezia	0	0	1	2
Erresuma batua	0	0	1	1
Brasil	0	0	1	1
Argentina	0	0	0	1
Filipinas	0	0	0	5
Errumania	0	0	0	8
Lituania	0	0	0	1
GUZTIRA	5	11	30	39




martxan metodologia hori. Eta 2010ean emaitzen arabera gainerako herrietara zabalduko da. Itsasondon, noski, gure saiakera egingo dugu.

Hala ere, plan integrala behar da martxan jarri. Hau da, etorri berriak gizarteratzeko arlo kulturala kontuan izateaz gain, erabaki politiko, ekonomiko eta neurri sozialak hartu behar dira. Laurak batera joan behar dira, hots, etorri berriak herritartu nahi baditugu herritar bihurtu behar ditugu. Hau da, arlo guztiak landuta hizkuntzarena eta alde kul-

turala alboratuta, ez da integrazioa bermatzen, eta era berean, beste arlo guztiak (gutxieneko bizi-baldintzak ziurtatuta) landu gabe, hizkuntza eta kultura ezin dira landu.

Hainbat eskumen politiko garrantzitsu ez daude gure esku, baina, hori ez da oztopo izan behar etorri berriak herritartzeko plan on bat martxan jartzeko. Izan ere, guregana etorritako giza-mugimenduen alde positiboa aldarrikatu nahi dugu eta gure aldeko jarrera abegikorra piztu. ■





2. Ibilbidea

Arama-Altzaga-Altzagarate-Gaintza-Zaldibia-Itsasondo

Iraupena: 3 ordu eta 30 minutu

Itsasondo-Arama 15', Arama-Altzaga 25', Altzaga-Altzagarate 40', Altzagarate-Gaintza 45', Gaintza- Zaldibiako kruzea 40', Zaldibiako kruzetik-Itsasondora 45'.

Deskribapena:

Oraingo honetan aurkezten dugun ibilbidea nahiko urbanoa da, gehiena errepidez egiten baita. Horrexegatik proposatzen dizuegu bidea egiteko oinetako aproposak aukeratzea. Hasiera Renfeko geltokian emango diogu, eta berotzen hasteko, Aramara abiatuko gara.

Ez da izugarriko esfortzurik egin behar, baina, gorputza berotzeko primeran etorriko zaizkigu lehenengo maldatxo horiek. Hemendik aldapa gorantz Altzagarateraino, Altzagarate pasatuz, eta eliza aurrean dagoen Arteaz gozatuz. Behin Altzagaraten, asfaltoa utzi eta Ermitaren eskuinaldetik ateratzen den ormigoizko pista hartu, eta Bostaizetatik, laster ikusiko dugu Gaintzako herria.

Gaintzako taberna, indarrak berritzeko leku aproposa izan daiteke. Zaldibiara joateko alternatiba ezberdinak dauzkagu. Luzeena Larraizko bidetik Zaldibiako erdigunera; beheko etxe adosatuen ezkerretik jaisten den bidea hartuta, edo guk hartuko duguna, Ordiziako bidegurutze aldera hartuta. Behin bidegurutzean, Ordiziarantz jarraitu behar dugu, Orkliko semaforora arte. Han eskubitara hartu eta Aramako parke berrira aterako gara. ■





02 Alzagako Udaletxea



03 Alzaga



Saletxe baserria 04



05 Burni-Sagasti




06 Alzagaratetik Gaintzara



Baliarrain 07



08 Gaintza



Zaldibia 09

Kontuz! Hor ditugu eta landare exotiko inbaditzaileak!

Aranzadiko Botanika Saila

Robinia pseudoacacia espezie inbaditzailearen hosto eta lorearen ikuspegia



Robinia pseudoacacia

Izen arrunta: sasiarkazia.

Lortze garaia: IV-VII

Lehen aipamenaren urtea (EAEn): 1967

Jatorria: ipar Amerika.

Sarrera bidea: apaingarri gisa kultibatua eta hazkuntza azkarreko zuhaitza denez egurretarako landatu izan da.

Habitata: ibai ertzeko baso mistoak eta hariztiak ordezkatzeko ditu. Hala ere, haziak oso erraz barreiatzen dira eta sustraietatik kimu berriak botatzeko joera duenez espezie inbaditzaile gisa dihardu ezponda, lur mugitu eta edozein lur soilduetan.

Oharrak: habitat naturalen galera dakar. Lurzoruko nitrogeno kantitatea handitzea da sortzen duen eragin kaltegarrienetarikoa. Lurrean pilatzen diren hostoek lurzoruan beste basoetan baino nitrogeno kantitate bikoitza sortzen dute. Honek basoko landaredi naturala pobretzea ekartzen du.

Reynoutria japonica espeziea ibai-ertzean



Fallopia japonica

Izen arrunta: Poligono japoniarra.

Sinonimoak: Reynoutria japonica, Polygonum cuspidatum.

Lortze garaia: VII-IX

Lehen aipamenaren urtea (EAEn): 1985

Jatorria: Asia (Japonia, Korea eta Txina).

Sarrera bidea: apaingarri gisa kultibatua.

Habitata: Hezetasuna behar duen espeziea izanik ibai eta erreka ertzetan agertzen da.

Oharrak: Errizoma handiak ditu (7-15 m luzera eta 2 metro sakonera). Landareak uraren eta elikagaien erabilera eraginkorri esker beste landareekiko lehiakide gogorra egiten du. 1 gramo baina handiagoko errizoma zatiek landare berria erregeneratzeko ahalmena dute. Horrela, ibai ibilguetan landarearen barreiapea erraza egiten da. Behin finkatua hazkuntza oso azkarra du eta ez du beste espezierik inguruan hazten uzten.

Buddleja davidii espeziea hazia garatzen



Buddleja davidii

Lortze garaia: VI-IX

Lehen aipamenaren urtea (EAEn): 1967

Jatorria: ekialdeko Asia.

Sarrera bidea: apaingarri gisa kultibatua.

Habitata: ezponda eta bide ertzetan. Leku eraldatuetan basati bihurtu da. EAE mailan habitat naturaletan orain arte arazorik eman ez arren, dagoen lekuan naturaltasuna kentzen dio. Baina habitat eraldatuetan oso ugaria da eta pixkanaka habitat naturaletara zabaltzen hasia da.

Oharrak: hazi bidez barreiatzen da, haize bidez. Lore bakoitzeko egoera optimoetan 40.000 hazi garatu ditzake. Errepide eta autopistetan, autoek sortzen dituzten turbulentziek bere barreiapea errazten dute. Hazkuntza oso azkarreko landarea da eta landaredi naturala kendua izan deneko kasuetan lur biluzi hauek azkar kolonizatzeke ahalmena dute.

Zer dira landare exotikoak?

Landare aloktonoak, exotikoak ere deituak, gurea ez den beste eremu geografiko batetatik eratorriak diren espezieak dira.

Zer ezberdintasun dago landare exotiko eta landare inbaditzaileen artean?

Landare exotikoak gehienetan gizakiaren eraginez barneratuak izan dira. Hauetariko asko naturalizatu egin dira, hau da, habitat ezberdinetan belaunaldi bat baino gehiagotan ugaltzeko gaitasuna dute. Landare exotiko hauetariko batzuk kopuru handian, distantzia eta eritmo nabarmenetan ugaltzeko gai direnean landare inbaditzaileetaz hitz egin genezake.

Euskal Autonomia Erkidegoan 478 espezie aloktono katalogatu dira, EAEko flora totalaren ia %21a.

EAEko espezie aloktonoetatik %18 inbaditzaileak dira.

EAEko exotikoen %34ak jatorri amerikarra, %26ak jatorri mediterranearra eta %15ak jatorri asiarra dute.

Landareen inbasioa ez da prozesu berria baina azken hamarkadetan perspektiba globaleko arazo bilakatu da. Espezie aloktonoen inbasioa bertako espezieen kontserbaziorako arrisku nabaria da eta Munduko Biodibertsitatearen galera eragiten duen bigarren mehatxua da habitat galeraren ostean.

Nola eragiten dute landare inbaditzaileek Biodibertsitate galeran?

Landare exotikoek ekosistemen funtzionamendu eta egituran zein bertako populazioetan sortzen dituzten inpaktu zuzenetan isladatzen da galera hau, hala nola, lehiakortasunean, depredazioan, kutsadura genetikoan eta patogenoak barneratzean. Gertaera hauek bertako populazioen lermatzea, indibiduen hazkuntza txikitzea, ugaltze-arrakasta murriztea eta habitaten erabilerak eraldatzea dakarte.

Nazioarteko merkataritzaren emendia eta garraio ugartzea eta kontinente arteko bidaien emendia izan dira espezie exotikoen barneratzeko bide nagusiak.

Helianthus laetiflorus landarea inbaditzailearen lorea ikusgarria



Helianthus tuberosus

Sinonimoak: H. rigidus, H. x laetiflorus.

Loratze garaia: VIII-X

Lehen aipamenaren urtea (EAEn): 1978

Jatorria: ipar Amerika.

Sarrera bidea: orokorrean elikagai eta bazka gisa.

Habitata: ibai lautada. Espezie hau habitat eraldatueta ugaria den arren arriskutsua da ibaertzetako habitat natural hezeetan duen inbasio potentziala dela eta.

Oharrak: Frantzian XVII. mendean barneratu zen patata nagusitu baino lehen eta pertsona eta animalientzat elikagai bezala erabilia izan da.

Stenotaphrum secundatum landare errestariaren ikuspegia



Stenotaphrum secundatum

Sinonimoak: S. americanum, S. dimidiatum.

Loratze garaia: VI-XI

Lehen aipamenaren urtea (EAEn): 1941

Jatorria: Amerika tropikala eta subtropikala.

Sarrera bidea: istripuz barneratua, merkantzien garraioarekin erlazionatua.

Habitata: hareatza, itsaslabar eta padurak.

Oharrak: hazi bidez ugaltzen da baina behin finkatuta begetatiboki ugaltzen da, estoloi luzeen bidez (estoloiak korapiloetan errotzeko gaitasuna dute).

Cortaderia selloana espeziea loretan



Cortaderia selloana

Izen arrunta: Panpa-lezka.

Loratze-garaia: VIII-IX

Lehen aipamenaren urtea (EAEn): 1949

Jatorria: hego Amerika.

Sarrera bidea: apangarri gisa kultibatua.

Habitata: ezponda eta lur mugituetan nagusitzen den espeziea izan arren azken urteotan habitat naturaletan aurkitu izan da.

Ezaugarriak: Espainian 20 espezie exotiko inbaditzaile kaltegarrienerikoen artean onartua dago. Infloreszentzia eme bakoitzak 100.000 hazi bideragarri ematen ditu.

Paspalum dilatatum espeziearen ikuspegia



Paspalum generoko espezieak

Espezieak: Paspalum dilatatum, Paspalum distichum eta Paspalum vaginatum.

Loratze garaia: VI-XII

Lehen aipamenaren urtea (EAEn): 1896

Jatorria: Amerika.

Sarrera bidea: istripuz barneratua, merkantzien garraioarekin erlazionatua.

Habitata: sega berlardiak, belardi hezeak, kunetak, ibai ertzak, duna eta padurak.

Oharrak: Euskal Herrian eskualde kantauriarren bereziki sega-belardietako espezie ugariena bilakatu da habitat hauen dibertsitatea jeitsiaz eta belardi hauetako orno-gabeen komunitateengan eraginez.

Antzinako gertaera, egungo mehatxua!

Jarraikoak dira gure inguruan ikus daitezkeen landare exotiko inbaditzaile arriskutsuenak:

Jarraiko espezie hauek interes bereziko komunitate naturalak eraldatzeagatik espezie inbaditzaile arriskutsuenak, gure lurraldeko landaredi naturalaren kontserbazioa arriskuan jartzen baitute. Hauek ekosistemetan eragin nabarmenak sortzeko gaitasuna dute. Beraz, garrantzia berezia eman behar zaie eta estrategiak eta gestio-planak diseinatzerakoan ekin-tza bereziak eskatzen dituzte.

Itsasondon egingo diren prebentzio eta erradikazio-ekimenak:

Jarraiko hilabeteetan Itsasondoko Udala, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin, landare exotiko inbaditzaile arriskutsuenen erradikazio lanak aurrera eramaten hasiko da. Udala jarraiko tratamenduak egiten hasiko da Oria ibai-ertzean:

- **Tratamendu mekanikoa:** landare inbaditzailearen zati aereo behin eta berri moztean datza teknika hau, modu honetan erreserba organoak agortu eta landarearen heriotza eraginez. Landare- hondarrak ongi biltzen direla ziurtatuko da.
- **Tratamendu kimikoak:** landare inbaditzaile herbizida bidez tratatuko da. Espezie hau kontaktuzko herbizidekiko sentikorra da, glifosatoa kasu.
- **Ibai-ertzaren errestaurazioa:** ibai-ertza errestauratu asmoz bertako zuhaitz espezieak landatuko dira, sahatsa, lizarra, intsusa, haltza...

Itsasondoko lurjabeek beren lurretan landare-espezie hauek balituzte jarri daitezela Udalarekin kontaktuan espezie hauen erradikazio eta kontrol lanetan edozein informazio oso baliagarria baita. ■

Itsasondon, 2009ko urtean proiektu desberdinen aurreikuspena

Baserrietako seinalizazio lanak: Itsasondoko base-rien seinalizazio lanak egingo dira, horietara iristeko bideetan dagokion poste eta letreroa jarritz.

Aurrekontua: 17.040 €. Finantziakzioa 6.819 € Goimen Elkarateak eta 10.221 € Udalak.

Telebista Digitala. Herritarren artean azken aldi honetan kezka dezente sortzen ari den gai bat izanik, Udala Retevisioekin behin baino gehiagotan jarri da harremanetan. Itsasondoko herriaren kokagunea kontutan izanda, Usurbeko antenatik telebista digitala jasotzeko aukerarik ez dagoenez, Itsasondoko Errepikagailua berritzeko tramiteak aurrera eraman dira.

Retevisioek dorre berria eta ekipamendu berriak jartzeko ardura bere gain hartu du, eta obrak egiteko baime-nak eskuraturik, dagoeneko telebista digitala jasotzeko obrak hasita.

Hautzaindegia: Udalak Goiko kalean, Kalea etxean, duen behe solairuko lokalean, hautzaindegi berria jarriko du. Uztailean obrak bukatuko dira eta oportetako etenaldia trasladoa egiteko erabiliko da. Hala, irailean kurtso berrirako prest egongo da.

Lokalaren ezaugarriak: 93,19 m² eta 30 m² terraza, kanpoan. 21 haurrentzako lekua izango du.

Aurrekontua: 196.963 €. Lokala (99.000 €), Udalak ordaindu du eta barruko egokitzapenetako kostua Fondo Estatal de Inversion Localen bitartez ordainduko

da (107.963 €).

Itsasondo-Ordizia Bidegorria. Gipuzkoako Foru Aldundiak, Itsasondo-Ordizia bidegorriaren lizitazioa udarako egitea espero du eta urtearen bukaerarako lanak hasita egon beharko liriateke. Udalak, Aldundiak proposatutako ibilbideari zenbait ekarpen egin dizkio, baina beste askotan bezala, ez dituzte kontutan hartu. Norbaitek informazio gehiago nahiko balu, udaletxean dauka proiektua. Aurrekontua: 3 milioi €.

Argiteri publikoaren intentsitatea jaisteko lanak.

Sistema honekin argi kontsumoa kontrolatu eta gutxitu egingo da. Aurrekontua: 43.396 €. Finantziakzioa, 22.446 € Foru Aldundiko Agenda 21, eta 20.950 € Udalak.

Udaletxeko igogailua. Aurrekontua 64.259 €. Finantziakzioa: 31.067 € Eusko Jaurlaritzak eta 33.192 € Udalak.

Langileen kontratazioa: Aurtengo urtean Itsasondoko Udalak, INEMen diru-laguntzarekin langile bat kontratatuko du. Lan hauetan arituko da:

- 1 Herriko uraren kontadoreak aldatuko ditu. Jarriko diren berriak irakurketa egiteko sistema berezia daukate. Hemendik aurrera, inor etxean sartu gabe ere irakurri ahal izango dira.

- 2 Herriko baserrietako seinalizazioa jartzeko lanak:...

Gaztelekua: Gaztetxearen barruko egokitzapena (kale-fakzioa, margoketa...) dagoeneko bukatuta dago. Aurrekontua: 30.026 €. Finantziakzioa 10.402 € Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria Saila eta 19.624 € Udalak.



Hautzaindegi berria



Gaztelekua

Baserri bideetako luizien konponketa. Foru Aldundiak 2008. urtean Landa Gipuzkoa 32 proiektua iragarri zuen. Helburua 1.000 biztanle baino gutxiagoko udalei, azpiegitura eta ekipamendu obretarako diru-laguntzak bideratzean datza. Programa horren barne onartu diren proiektuak eta lortu diren diru-laguntzak hauek dira:

- 1. Itsasondotik baserri bideetako luiziak konpontzeko aurrekontua 124.240 €koa da. 99.392 € Foru Aldundiak, 24.848 € Udalak.
- 2. Agarre baserriko ur hornidura sare berria ezartzeko proiektua onartu da. Olasagastiko malda zeharkatzen duen Agarre baserriko ur hobia kendu eta trazatu berriak eramango da ura. Obra honen helburua luizi berrien arriskua kentzea da.

Bestalde, Urkia, Idoiaga eta Sarobeko pistak konpontzeko ere diru-laguntza eskatu zen, baino hauentzako finantziatorik ez da lortu.

Jubilatuena Elkartea. Elkartea lekuz aldatzea eta koka-pen berria ematea aurreikusten da. Jubilatuen Elkartea, Udalak Nagusia 16ko behe solairuan (Gipuzkoako Erlezain Elkartea gaur egun erabiltzen duena) duen lokalean jarriko da. Egin nahi diren obren aurrekontua 162.700 €koa da. Udararen zehar obrak esleitzeko prozedura martxan jarriko da. Finantziak: Udalak 126.545 € eta 36.155 € Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza Sailak,

“EREIN” programaren bitartez.

Udaletxearen berrikuntza obra. Eraikinaren egoerak eta zerbitzu berrien ezarpenak eraginda, Udalak bultzatutako proiektua da. Behe solairuan kultur gunea-ludoteka eta liburutegia ezarriko dira eta bigarren solairuan zerbitzu administratiboak. Onartutako proiektuaren aurrekontua 653.400 €koa da. ETORLUREkin hitzarmena laster sinatuko da. Kopuru handi batean Aldundiaren laguntza izango du.

Itsasondoko Beka. 2007. urtean Itsasondoko Aztergai bekaren I. deialdia egin zen. Deialdi horren arabera beka Jon Mikel Aranori eman zitzaion, eta aurtengo urtean jaso da egindako ikerlanaren dokumentazioa. Hurrengo fasean erabakiko da jasotako dokumentazioa nola eta zer formatuan argitaratuko den.

Udalaren aldetik eskerrak eman nahi dizkiegu, lehen fase hau gauzatu ahal izateko era batean edo bestean laguntza eman duten pertsona guztiei, eta bereziki epaimahaia osatu duten **Mikel Aramendi, Iñaki Aizpuru** eta **Iñaki Larrañagari**, "beraien" lanikidetzak garrantzitsua izan baita lana gauzatu ahal izateko.

Beitiko aldapa egokitzeko lanak. Irigarritasun baldintza egokietara iristeko, bidea zabaldu eta oinezkoentzako espaloia jarriko da. Obra hori aurtengo hasi eta 2010. urtean amaitzea da asmoa. Aurrekontua: 373.414 €. Finantziak: 112.024 € Foru Aldundiak,



Jubilatuena Elkartea



Beitiko aldapa



emakume berdintasun plana

Sexu jazarpena:

Maitzaren 1a egun esanguratsua da langile guztientzat baina are gehiago emakume langileontzat. Eta egun honen harira, lan munduan gertatzen den fenomeno baten inguruan hitz egitea beharrezkoa iruditu zaigu: lan munduan ematen den sexu jazarpena edo akosoa. Hainbat fenomeno ezberdinen artean, gutxien hitz egiten dena da, azken batean salaketa kopuru murrizta duelako eta bera ikusarazteko beharra dagoelako.

Honakoa da fenomeno honen definizioa:

Sexuan oinarritutako edozein jokabide da, emakume eta gizonen duintasunean eragiten duena. Jarrera honekiko ezezotasunak edo sumisioak laneko aukeraketa prozesuetan eragina dutenean gertatzen da.

Sexu jazarpenak ondorio psikologiko larriak sortzen ditu sufritzen dituen pertsonarengan; hala nola, estresa, ansietatea, depresioa, inpotentzia, urduritasun egoera jarraia...

Orokorrean, emakumei eragiten dien fenomeno honek salaketa kopuru txikia jasotzen du. Askotan, emakumeen aldetik erruduntasun sentimendua agertzen delako. Eta beraz, salatzen diren kasuak askotan ehuneko txiki bat besterik ez dira izaten.

Teorian eta praktikan emakume nahiz gizonek sufri dezakete sexu jazarpena lanean, baina orokorrean emakumeen artean zabalduagoa dagoen fenomeno da, gizonekin alderatuz emakumeek lan munduan egoera txarragoa pairatzen dutelako, prekarietate handiagoa dutelako e.a.

Hainbat eta hainbat artikulu ezberdin aurki daitezke interneten gai honi buruz, esaterako ondorengo web orrian: <http://www.nodo50.org/mujeresred/acoso.htm>

Web orri feminista horretan, besteak beste, jazarpenaren inguruko informazioa aurki daiteke, baina www.mujeresred.net orrialdean sartuz gero, feminismoarekin zerikusia duten hainbat gai ezberdinei buruzko artikulu interesgarriak ere aurki daitezke. ■



Itsasondoko Berdintasun Plana

Informazio gehiago:

<http://itsasondokoberdintasunsaila.blogspot.com/>



gizarte ongizatea

Pentsio osagarria

2009ko Urtarrilaren 1etik aurrera 640,64 euro baino gutxiago kobratzen duten pentsionistek kantitate honetara iristeko falta zaiena kobratzeko aukera izango dute. Etxean bizi diren anai-arreba edo/eta seme-alaben diru sarrerak ez dira kontutan izango, soilik norberarenak eta senar edo emaztearenak zein bere kargura dauden seme-alabek.

Beti ere kontutan izanda ez dela eskubiderik izango bigarren etxebizitzaren jabe dena edo 34.944 euro baino gehiagoko aurrezkiak dituenak.

Dirusarrerak gehienez

1 pertsona	8.968,96 euro (640,64 euro 14 pagatan)
2 pertsona	11.516,96 euro (822,64 euro 14 pagatan)
3 edo gehiagok	12.740,00 euro (910,00 euro 14 pagatan)

BIGARREN ETXEBIZITZA ETA BESTELAKO DIRUSARRERAK

1 pertsona	34.944 euro gehienez
2 pertsona	43.680 euro gehienez
3 edo gehiagok	47.174,4 euro gehienez

BEHARREZKO DOKUMENTAZIOA

BANKUKO AGIRIAK

- Kontu korrante zein inbertsio fondo eta akzioen egungo saldoa eta azken 6 hilabeteetako batz besteko saldoa.

BESTELAKOAK

- Nortasun Agiria (karneta)
- Zinpeko aitortpena (bestelako dirusarrerak egon daitezkeen kasuetan).
- Kontu korrontearen kopia.
- Errola eta elkarbizitza. ■



Auzolana

Orain dela urtebete hasi ginen Itsasondon auzolanaren bidez zenbait lan egiten. Garai batean, harria bota zuen batean, etxeetako teilatuak puskatu ziren eta auzolanean konpondu zituzten. Garai haiek gogoratuz, udalak proposatu zigun auzolanean herrian zenbait hobekuntza egitea. Orduz geroztik, gutxi gora behera 30 bat pertsona elkartzeko gara auzolanean, gure herrian ikusten ditugun zenbait hobetu behar aurrera eramateko. Auzolana ideia ona iruditzen zaigu, denok osatzen dugu Itsasondoko herria eta denon artean zainduz gehiago maitatuko dugu. Auzolanean gure txokoak zaintzeaz gain, gure arteko bizikidetzari indartzen dugu eta lanean oso ondo pasatzea lortu dugu.

Gu behintzat prest gaude auzolanean laguntzen jarraitzeko, lanean ondo pasatuz eta gure herria maitatuz.

Auzolanean aritzeko elkartu ginen azkenengo aldia, maiatzaren 11n izan zen. Txikiak ere primeran aritu ziren lan eta lan.

4etan etxera joan ginen arropa zaharra janzttera. 4:30ean plazan elkartu ginen. Danirekin parkera joan, eta aulkiak lixatu ondoren, margotu egin genituen.

Euria, kazkabarra eta harria ere hasi zen, eta frontoira korrika joan behar izan genuen. Oso ondo pasatu genuen, baina brotxa gehiago behar genituen.

Bukatzeke, txoko honen bitartez udalari eskerrak eman nahi dizkiogu eskolako aterpean egin dituen hobekuntzengatik, oso polita gelditu da!

1. 2. eta 3. mailako gelako ikasleak. ■



Gazte plana eta gaztelekuaren inguruko artikulua

2008KO Apirilean eman zitzaion irteera Itsasondoko Gazteria Planari. Orain arte, plan honen diseinuarekin jardun dute buru-belarri. Hain zuzen ere, etorkizunean aurrera eramango diren egitasmo berrien planifikazioan oinarritu da teknikariaren lana.

Hori bukatuta, Teknikari berria etorri da eta bere zeregina aurretik planifikatu diren egitasmo guzti horiek aurrera eramatea izan da. Hain zuzen ere, Itsasondoko Gaztelekua martxan dugu.

Hilabetetan zehar, gazteekin bilera ugari egin dira. Bertan, gaztelekuaren itxura, funtzionamendu, ekintzen inguruan eztabaidatu da eta bertan beraien beharrak, interesak, zalantzak argitu dira. Horren arabera, teknikariak bere lana bideratuko du. Horrez gain, Gaztelekuan bertan egokitzapen lanak egin dira. Tximinia kendu, berogailua jarri, pintatu... dena prestatu da gazteak bertan eroso egoteko.

Gaztelekua, Goiko Kale 2an (Eskola zaharra) dago kokatua eta Itsasondoko 12 eta 17 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago. Ostiraletan irekiko da arratsaldeko 17:00-20:00etara. Bertan hezitzaile bat egongo da, aldi berean Udaletxeko Haur eta Gazte teknikaria dena eta bertatik ekintza desberdinak bideratuko dira: Hitzaldi, tailerrak, irteerak.

Itsasondoko gazteen partehartzea bultzatuko da. Hilabetero denen artean ekintzak proposatu, onartu eta burutuko dira eta herriko gazteek izango dute protagonismo guztia. Ekintzak ez dira, ordea, bakarrik gaztelekura mugatuko. Egitasmo honekin herriko gazteak, eragile nagusi bihurtu nahi ditugu eta horregatik, urtean zehar herrian antolatzen diren ekintzetan ere murgildu nahi ditugu: Herriko festak, kiroletan, gabonetan... Erronka handia badugu ere, udaletik ilusio eta gogo handiarekin helduko diogu egitasmo honi eta zuen ekarpenak ere interesgarriak izan daitezke. Badakizue non gauden.

HAUR ETA GAZTERIA TEKNIKARI BERRIA

Joan den Apiriletik, Haur eta Gazteria Teknikari berria dugu. Berarekin norbaitek harremanetan jarri nahi izango balu; zalantzak argitzeko, haur eta gazteentzako ekintzak edota beraien inguruko informazio guztia bideratzeko, udaletxean aurkituko duzue astelehenetik ostiralera 9:00-12:45etara. Bere helbide elektronikoa ainara@itsasondo.net da. ■

Estresa eta krisi ekonomikoa: Poltsikoa estu eta burua larri

Diru arazoek sortzen duten beldur-rrari eta urduritasunari aurre egiteko, errealismoa, motibazioa eta ikuspegi alternatiboak behar dira

Guk pentsamendu ezkorrek badauzkagu, geure burua estutu egingo da eta estutu egingo gaitu; harentzat berdin du krisi ekonomikoa onorio diren gure kezka edo beste zernahiren onorio. Eta berdin jokatzeko estimulu baikorrek ere: datozen lekutik datozela ere, motibazioa sortzen du gugan. Epe motzeko helburuak ezartzen baditugu eta burua horietan jarri, aurrera atera ahal izango dugu, laster eta arin erantzuteko moduan izango gara, eta gero eta hobeto sentituko gara. Arazoak arazo izaten jarraituko du, baina ez gugan. Ulertu behar dugu, hala ere, normala dela estres eta estutasun sintoma batzuk agertzea, baina luzaroan irauten badute eta gure osasunari kalte nabarmena egiten badiote (hainbat arazo sor ditzakete: loezina, izu erasoak, asko argaltzea, itxaropenik eza, tristura, errabia eta besteenganako oldarra), profesional batengana jo beharko dugu, depresioa edo estutasun nahasmendua agertu baino lehen.

Krisi ekonomikoak bete-betean harapatu dituen pertsonen, lehen-lehenik, tarte bat hartu behar dute egoera zein den barneratzeko eta muturreko erabakirik ez hartzeko. Halakoetan, errabia eta tristura agertzen dira, eta okerreko irtenbideak hartzeko arriskua izaten da. Egoera zerk edo zeinek txartu duen pentsatzeko joera ere agertzen da, baina ez da komeni denbora asko ematea horretan, alferreko eztabaidak eta gatazkak sortzeko bidea eman baitezake, eta ondorioz, emozio ezkorrek are gehiago iraungo lukete.

Egoera barneratzeko tarte bat hartu ondoren, oso garrantzitsua da etsita ez geratzea eta irtenbide errealistak bilatzea. Ezkortasunak harrapatzen bagaitu, energiari ez dugu bilduko arazoari irtenbidea emateko. Mesedegarriagoa gertatuko zaigu pentsatzea zein alternatiba dauzkagun, eta gai bagara erabakimenez jokatzeko, horrexek emango digu botikarik onena depresioari eta estutasunari aurka egiteko, eta aurrera begira jartzeko, unean uneko egoeran ito gabe.

itsasondo2.0 (((5.zk)))



Erorita eta kermen gutxirekin gabiltzanean, oso lagungarria izaten da, halaber, irudimenari eragitea, alternatiba eta helburu plan bat antolatzeke; zenbaitetan, laguntza eska dakieke kudeaketa ekonomikoan aritzen diren profesionalen eta, zergatik ez, buru osasunaren arlokoen, irmotasunez eta motibazioz zehazteko zein diren egiazko aukerak.

Gogo-aldarteak suspertzeko beste bide bat izaten da pentsatzea arazo hau ere bukatuko dela, ez baitago krisi ekonomikorik beti-betiko iraungo duenik. Ziklo normal baten baitakoa da, aldiaren behin etortzen da eta, denbora baten buruan, gauzak bere onera itzuli ohi dira. Lehentasunen arabera antolatutako dugun planaren arabera jokatzeko badugu, ongi sentituko gara, eta hobeto eramango ditugu sor daitezkeen zailtasunak. Garai zailetan egin dugun planari lotzen bagatzaizkio, eta han jarritakoak zintzo betetzen baditugu, ezinegonak ez gaitu menperatuko.

Egoera irauli

Mugako egoerari nekez aurkitzen zaie alde onik, eta krisi ekonomikoak ere halaxe izaten dira, muturrekoak. Hala ere, pertsonen eta familien ahalegina egin behar dute egoera zail hori nolabait iraultzeko, langabeziak, zorrek eta abarrek jarri dieten ataka estuari zirrikituren bat aurkitzeko.

Kontrola ez galtzea, hori da garrantzitsua. Hori lortuz gero, tentsioa gutxitzeko edo desagerrarazteko egoeria izan dezakegu. Jarrera praktikoa edukitzea komeni da, ekitea, eta hurbilekoen babesa bilatzea; horrez gain, egunero zeregin edo betebeharrak batzuk finkatzeko ere asko laguntzen du, eguna lanaldi baten erara antolatzeak, alegia.

Halakoetan, egotea baino askoz hobe

izaten da egitea: egonean, gure baitara biltzeko eta han ixteko arriskua izaten da, eta horrek hondora eraman gaitzake.

Egunero egitekoen bat edukitzea oso ona, eta, horregatik, agenda bat egin behar dugu, eta askotariko jarduerak programatu. Aukeretatik bat izaten da denbora gehiago eskaintzea lehen egin ezin izaten gure horri, lanpetuegiak geundelako agian: seme-alabekin, familiarekin, lagunekin... denbora gehiago igaro dezakegu, eta atsegin zaizkigun beste jarduerak batzuk ere egin ditzakegu, kirola dela, edo irakurtzea... Ikastaroren bat egiteko ere garai ona izan daiteke, gure lan prestakuntza hobetzeko, adibidez, eta lehengoa baino lan hobe bilatzeko ere erabil dezakegu denbora.

Alderdi ekonomikoari eta materialari sortzen zaizkion zuloetatik beste gauza batzuk ikusteko parada sor dakiguke, harremanen eta gure behar barrukoenei begira jartzeko baliabideak.

Egoera zailetan, garrantzitsua da besteengandik hurbil sentitzea eta haiek gure laguntzeko prest daudela ohartzea: talde sentimendua pizten da, eta, beraz, eramangarriagoa suertatzen da arazoa. Gainera, energia berritzeko modu bat ere bada, eta bultzada horrekin, sentimendu ezkorrek bazter utzita, zailtasunari aurre egiteko kementa eskuratuko dugu.

Egoera zail-zailetatik irteteko gakoak:

- Egoera onartu
- Norbere egoeran zentratu
- Errealista izan
- Plan alternatibo bat pentsatu
- Zenbait proiektu gerorako utzi
- Ekonomikoak ez diren beste balio batzuen garrantzia

Herriaren hitza, lurrarekin batera jaten

Itsasondon, apirilaren 29an hasi dira, larrialdiko tunelaren eraikuntzarekin, Abiadura Handiko Trenaren obrak. N-1 errepidetik abiatu eta Pake-Leku etxearen ondotik jarraituko dute lanek. 2007ko eraikuntza proiektuan, ordea, lbareseko bidegurutzean zegoen bidea kokatuta. Aldaketa horiek Eusko Jaurlaritzak gutxi batzuen interesen alde egiteagatik egin ditu. Eta bertan, makinak azaldu ziren arte, Udalak ez du aldaketa horien berri izan. Berriro ere, beraien herria informatzeko egiten ari diren ahalegina agerian geratu da.

Itsasondon, Abiadura Handiko Trenaren trazatua lurrazpiko ibilbidea dela gogoratu behar dugu: Mariaratsetik Berostegira doan 3 kilometroko luzerako tunela. Tartean, ordea, jadanik gure herrian eraikitzen hasiak diren larrialdiko irteera egingo dute. Larrialdiko irteera hori, etorkizunean, trenbidearen mantenu lanak egiteko, edozein egoera larri irtenbidea emateko e.a. izango da.

Lanak irauten duten bitartean, kamioien joan-etorriak, luizi arriskuak eta obra-hondakinak izango ditugu. Eraikitzen ari den bideak kota diferentzia handia du, eta metro gutxitara dagoen herri bidea asenturik gabe uzten du. Bide hori etengo baltz, zenbait baserrietako bidea moztuta geldituko litzateke.

Aurretik aipatutako ibilbide aldaketa horrek, zoritxarrez, Itsasondoko herriaren zabalkuntzarako eragin zuzena izango du, lur horiek **"Hiriguneko babes gune"** bezala kalifikaturik azaltzen direlako 1990ean onartutako arauetan, eta baita, gaur egunean onartzear daudenean ere. Itsasondoko orografia kontutan hartuta, herria handitzeko aukera txikiak geratuko dira. Orain egiten ari diren obrak okupatzen duten terenoa baita, hain zuzen ere, etxebizitza berriak egiteko aukera bakarrenetakoa.

Honen guztiaren garrantzia ikusi eta gero, Udalak Eusko Jaurlaritzako Garraio Sailburuari eskaria luzatu dio:

"Trenbide sare berriaren proiektuan sartu gabe dauden eta Udalen honen baimenik gabe egiten ari diren obrak berehala bertan bera uzteko."

"Hasierako proiektuan agertzen ez ziren obra horien azalpena ematea eta hasierako proiektua aldatzeko izan diren arrazoiak azaltzea. Eta bide batez, gure herrietako base-



Informazio gehiago:

www.ahtgelditu.org

www.blogak.com/goierrikoahitez

<http://sindominio.net/ahtez>

rrietara doan pistan egindako obren ondorioz sortutako arrisku egoera konpontzeko."

Bestalde, apirilaren 25ean, gure etxetako buzoietan, zalaparta ugari sortu zuen gutuna jaso genuen. Gutun horrek komunikabideen interesa ere piztu zuen, beraien albistegietan ateratzeraino.

Gure ezezko hitza errespetatu ez badute ere, ez dugu ahaztu behar, azpiegitura erraldoi honek izango eta jadanik dituen diru mugimendu erraldoiak: txin-txin, txin-txin...

Euskal "Y"aren lanen aurrekontua 6.400 milioi eurotakoa da. Adibide bat emateagatik, 18 urtetik gorako herritar bakoitzari 4.860 euro ordaintzea tokatzen zaigu.

AHT Gelditu Elkarlanaren esanetan, 4.860 euro ordaintzeko eskaera egiten duen agiri horrekin norbait gehiegi izutu baldin bada, barkamenak eskatzen dizkiogu. Baina era batera edo bestera

ordaindu egin beharko dugu, zerga gehiago ordainduz edo zerbitzu publikoen murrizpena pairatuz. Beraz, horixe da AHT aurrera badoa, bakoitzak ordaindu beharko duguna."

Estatu Espainiarra izango da Europa osoan etxebizitza eta autobia kilometro gehien eraiki duen estatua. Eta eraikuntzaren burbuilak eztanda egin duen honetan, zein da Eusko Jaurlaritzak eta Aldundiek emandako erantzun magikoa? Autobiak, Autopistak, AHTk...e.a. diru publikoarekin eraikitzekeko prozesuak azkartzea. Hartara Madrilgo gobernuaren egitasmoak betetzekotan, Espainia izango da mundu osoan Abiadura Handiko Tren kilometro gehien izango duen estatua. Eta zein da lanik gabe, babes sozialik gabe, etxebizitzarik gabe geratzen ari diren herritarrei gobernu horiek emandako erantzuna? **Horretarako dirurik ez dagoela.**■



Jaien egitaraua

Abuztuak 14, ostirala

9:00etan: Goiz eresia

21:00etan: Jubilatuen afaria, musikaz lagunduta

Abuztuak 15, larunbata

9:00etan: Goiz eresia

11:00etan: Meza Nagusia

12:00etan: Hamaiketakoa, eta ondoren,
bertsolariak Goiko enparantzan

13:00etan: Toka txapelketa

18:00etan: Pilota partida, beheko frontoian

20:00etan: Sagardo dastatzea, beheko plazan



Herri-krossa



Kaixo lagunok.

Beitiko bizilagun talde bat, bigarren aldiz animatu gara ITSASONDOKO HERRI KROSA antolatzena, eta orain balorazioa egiteko eta eskertzeko garaia heldu zaigu.

Bi helbururekin planteatzen genuen ekintza hau; alde batetik ahalik eta parte hartze zabalena izatea eta adin guztietako jendeak parte hartzea. Gure ustez 40 lagun inguruk parte hartu izanak badu bere garrantzia eta beraz balorazio positiboa egiten dugu. Bigarren helburuari dagokionez ere oso ondo bete dela iruditzen zaigu izan ere bai antolakuntzan eta baita korrika ere adin guztietako pertsonak ibili izan gara.

Argazki hauetan ikus dezakezuen bezala oso une bitxi eta dibertigarriak bizi izan genituen, beraz hori ere baloratzekoa dela uste dugu.

Hurrengo urterako jendeari parte hartzeko deia luzatu nahi diogu.

Mila esker parte hartu duzuen guztioi eta nola ez, antolakuntzan lagundu diguzuen guztiei ere.

Aio eta hurrengo urtera arte.

Herri Urrats



Maiatzaren 10ean genuen hitzordua, igande izateko goiztiar ibili ginen, goizeko 8retan eginga bai genuen zita: Eguna lainotsu ageri zen eta zeruak euria mehatxatzen zigen. Ala ere 38 lagun prest ginen gure aterki eta xira hartu eta Senpere aldera abiatzeko.

Senperen ginen 9:30ak aldera eta bertan euriak egin zigun harrera baina ez zen luzerako izan; gosaldutik bezain pronto eguzki izpiak azaltzen hasi ziren eta lakuari bira emateko une aproposa izan zen. Denetarik zegoen ikusi eta egiteko, gure txikiak hor ibili ziren jo ta ke gelditu ere egin gabe, tirolina, puzgarriak, lakua etb. luze bat gaitzatzeko bitartean bertako guneek eskaintzen zigutena dastatzeko aukera izan genuen.

Ordubatak aldera gure sukaldariak zeuden lekura gerturatu eta mahaiak prestatu genituen, 53 lagun elkartu ginen bazkaltzera, Itsasondokoez gain hainbat lagun elkartu zitzaizkigun, Iparraldeko Kuxkuxtuko txarangako lagunak eta Errumaniar musikari talde bat ere bertan izan zen gurekin bazkaltzen. Jatekoa beti bezala ederra zegoen eta giroa nola ez, ezin hobea izan zen.

Bazkaloste oso luze baten ondoren, Kuxkustu txarangakoez ederki alaituta, guk nahi baino lehenago baina 6:30etan autobusarekin genuen hitzordua bete beharrean izan ginen; justu giroa hobereanean zegoenean...

Hurrengo urtean gehiago.

Korrika 16

Apirilaren 2an iritsi zen KORRIKA Itsasondora. Ordurako 1.600 kilometro eginak zituen lekukoak, eta ongi etorri beroa egin zioten Itsasondoarrek lekukoari. Goizeko hamarrek inguruan iritsi zen KORRIKA Itsasondora, eta herriko plazan bertako eskolako haurrak eta herritar asko zituen zain. Plazan, Udalak Itsasondoko herri eskolari pasa zion lekukoa, eta hauek eskolako gurasoei pasa zieten. Arbel-aitz elkarteak izan zen lekukoa hartzen hurrengoa, eta Legorretara bidean azken tartea Ijito Kirol Elkarteak egin zuen. Bide guztian, jendez ondo lagundurik igaro zen euskararen lekukoa.

Arratsaldean, aldiz, KORRIKA txikiaren txanda izan zen. Aramatik abiatu zen lekukoa arratsaldeko 5etan, eta handik Itsasondorainoko bidea egin zuen. Tren geltokian, Aramako haurrek lekukoa pasa zieten Itsasondoko haurrei eta hauek Itsasondoko plazaraino ekarri zuten. Ondoren, plazan denentzat merienda eta jokoak izan ziren, ikustea besterik ez dago zein gustura ibili ziren.

Hurrengo egunean, apirilaren 3an, triki-bertsu poteoa eta afariaren txanda izan zen. Ekimen hau KORRIKA kulturalaren barne antolatu zen, euskal kultura bultzatu nahian. Arratsaldeko 7etan, plazan elkartu eta bertsolari eta trikitilariez lagundurik herrian zehar poteoa egin zen. Ondoren, Arbel-aitz elkarteak afari goxoa zegoen prestatuta eta behin indarrak harturik, bertsu, musika eta parrak ez zuen etenik izan goizeko ordu txikietara arte.

Horixe izan da aurtengo KORRIKA, 16.ena. Bi urte falta dira berriz ere KORRIKA gure artean izateko, baina bitartean, egunero izan dadila euskararen festa.



Leizarana mendi bizikleta irteera



Maiatzaren 16an, larunbata, goizeko 9etan egin genuen hitzordua Itsasondoko enparantzan. Hamasei lagun bertaratu ginen, eta txirriak furgonetan sartu, eta Andoain aldera abiatu ginen. Leizaranera iritsi ginerako eguraldi paregabea genuen zain, bizikletetara igo eta hor abiatu ginen trenbide zaharraren bidean barna. Bakoitza bere indar eta erritmoan joan ginen naturaz eta giroaz disfrutatuz.

Hogeita bi kilometroko ibilbidea egin genuen, eta Leizara iristean, bertan hamaiketako ederra egin genuen; bueltarako indarrak hartu eta indarberriturik abiatu ginen Itsasondora. Kaxintanen bazkari mokadua eginda eman genion amaiera txangoari. Egun paregabea pasa genuen bertan izan ginenok. Hemendik, herritarrei beste urte baterako gonbita luzatzea besterik ez zaigu geratzen. Ederki pasako dugu.

Poxpolo eta Mokolo



Maiatzaren 8an, ostirala, Poxpolo eta Mokoloren emanaldia izan genuen Itsasondoko Errota pilotalekuan. Haur eta guraso pila bat gerturatu ziren pailazoan "Mekaxis Mariatxi" emankizuna ikustera, eta kontatu digutenagatik, pena merezi izan zuen. Denek ederki pasa zuten, ez zen barre eta oihurik falta izan ostiral arratsaldean Itsasondon. Hemendik eskerak eman nahi dizkiogu "AMPO" enpresari ekimen honetan bere laguntza eskaintzeagatik. Beste bat arte.

Urkiko Maiatzeko gurutze deunaren jaiak



Maiatzaren 2an hasi ziren Jaiak Mus Txapelketarekin. Bertan MIGUEL GOROSTI-ZU eta FELIX GARMENDIA suertatu ziren Txapelkun.

Ondoren Afaria izan zen 40 lagun pasa elkartu ginelarik, eta ondorengo Erromeria, LAJA eta MIKEL-ek alaiturik oso giro onean joan zen.

Igandean, Maiatzak 3, mezarekin eman zitzaion hasiera. Hamaiketakoan elkarteko jangela guztiz bete zen.

Arratsaldean Aizkolarien saioarekin hasi ziren ekitaldiak, Zaldua kolpe bakar batez Ugartebururi gailendu zitzaierarik. 100 ikusletik gora bertaratu ziren.

Ondoren Emakumeen eta Gizonezkoen Toka txapelketak izan ziren, IGONE ARANBURU eta FELIX GARMENDIA hurrenez hurren izan zirelarik irabazleak.

Azkenik OLARTE ANAIEK eman zioten Festari amaiera erromeri jendetsu eta alaiarekin.

URKIKO JAIEN BATZORDEA

Topagunea

Martxoaren 18an, Itsasondok Goierriko beste herri batzuekin batera, Topaguneak antolatzen duen Kultur Zirkuitoan parte hartzeko aukera izan zuen.

Gaueko 10etan hasi zen Lakrikun antzerki taldearen "greban gaude" antzerki ikuskizuna. Jende asko bildu ginen Itsasondoko Aterpe itxian, eta bertaratutakoek parre eta irri ugari egiteko aukera izan genuen. Benetan ondo pasa genuen.

"Greban gaude" antzerkiak grebara jotzen duten hiru emakumeen istorioak kontatzen ditu. Grebaren zergatia hasiera batetan inork argi ez badauka ere, aurrera joan ahala bakoitzaren arrazoi ezberdinak azalduko dira; izan ere, gure hiru protagonistek oso izaera ezberdina dute eta gai ezberdinak jorratzeko orduan ezin ulertuak agerian geratuko dira.

Aurten ere antzerkiak izan duen harrera ona ikusirik, hurrengorako prest gaude.



Liburuaren txokoa

FANNYREN IKERTZAILE-AGENTZIA

Patricia Schroder

Fannyri ikertzaile-agentzia bat egitea bururatuko zaio Maya, Leo eta Dotte lagun minekin batera. Laster izango dute lehen kasua: txori exotikoak lapurtu dituzte Fannyren aitak lan egiten duen animalia-dendan.



HOBBITA

J.R.R. Tolkien

Bere hobbit-zuloan lasai aski bizi zen Bilbo Baggins, Bag End herrian. Baina Gandalf aztiak eta ipotx batek ziztaturik, Smaug Dragoiaren altxorra berreskuratzeke abenturan nahasturik aurkitu zen. Baina nork aurre egin altxorra bere zuloan zeukan dragoi izugarri handi eta arriskutsu hari?



LA FLOR DE LA ARGOMA

Toti Martinez de Lezea

Toti Martinez de Lezearen liburu honek Urrondo anaien gora beherak kontatzen dizkigu. Umezurtz geratu ondorenean, Loiolako jesuitekin bizitako anaia hauek Oñatira bueltatu beharrean aurkitzen dira, Isabel Iaren kanporaketaren ondoren.

Hirugarren Gerra Karlistaren barne aurkitzen dira, ia nahi gabe, eta borrokan arituko dira, Urrondoa base-ria eta Juliaren maitasuna lortzeko.

IRAULTZEN MARATOIA

Joxe Iriarte "Bikila"

Liburu honetan zehar hainbat herraldetan izan diren iraultza eta matxinaden berri ematen digu egileak, berrogeita bi kilometroren buruan. Protagonistak indirarrak, gladiadoreak, langileak eta iheslariak dira. Edonon eta edonon edozein bidegabekeriari aurre egitera ausartu diren herritar anonimoak eta ezagunak dira guztiak.



Maiatzean liburutegian erosi diren liburuen zerrenda:

El Jardín de la Oca. Toti Martínez de Lezea

El señor de las llanuras. Javier Llanes

La casa veneciana. Mary Nickson

La Reina en el palacio de las corrientes de aire. Stieg Larsson

El Highlander indomable. Monica Mccarty

Lehiaketa mundiala



Gure lehiaketa mundialaren irabazleak: Ruth eta Alberto
Ale guztietan asmatu dute erantzuna eta Kaxintanen bapo bapo afaltzeko aukea izan zuten.

Hurrengo alean lehiaketa berriro ere martxan jartzen dugu baina oraingo honetan hitza egunkarian harpidetza zozketatuko dugu.

Proposatzen dizuegu 10 lerrotan azaltzea zeintzu diren herrian egingo zenituen hobekuntza haundienak

Anima zaitetzte!!!!

Itsasondo2.0@itsasondo.net

Kultur Agenda

Ekaina

EKAINAK 23, ASTEARTEA: SAN JUAN SUA

- 20:30ean sua piztuko da, eta, txorixo eta sardinak dastatu ahal izango dira.
- Ondoren, sorginen jaitsiera eta sorgin dantza izango da.
- Ekainean zehar Gaztelekua irekiko da; irekiera festa izango da eta ondoren, ostiralero 17:00etatik 20:00etara gazteentzako (12-18 urte) ekintzak izango dira.

Uztaila

UZTAILAK 3,10,17,24

- Uztaileko ostiraletan, gaueko 10etan zinema izango da Itsasondoko goiko plazan. Eguraldi txarra egiten badu, zine emanaldia Eskolako aterpe itxian izango da.
- Oraindik egunak, maiztasunak eta ekintzak erabaki gabe badaude ere Itsasondoko gazteentzat ekintzak antolatu dira, hala nola tailerra, irteera eta festa...

Aitor Milok bidalitako argazki zahar bat



**GOGORARAZTEN DIZUEGU
HURRENGO ALEA IRAILEAN
IZANGO DUZUTELA ETXEAN.**

itsasondo2.0

Herriko aldizkaria (((5. zk))) ekaina-abuztua 2009



Ale honetan parte hartu dutenak honakoak dira:

Ainara Urteaga Alaitz Aierbe Iker Mendizabal Aitor Garmendia Aitor Milo Mikel Aranburu Haizea Arruti Rosi Noguera Mari Aizpuru Gorka Martinez Danel Etxeberria Mari Jose Arrizabalaga Gorka Telleria Maite Laso Miren Segurola Belen Mendizabal Jose Luis Aranburu